

1994ko Irailak 9

245. zenb.

PRESS

ARRASATE



Eskolarako gertu



San Frantzisko Xabier




➔ Irailaren 12ra arte
REMeko matrikula
zabalik
FERIXALEKUAN.

➔ Hemendik aurrera,
zerbitzu guztiak
(bulegoak, Zuzendaritza,
Jantokia...)
FERIXALEKUAN.

Tfnoa: 79 64 79

Harpidedun, berritu edo oparitu harpidetza!



* Arrasatetik kanpo **ARRASATE PRESS** jasotzen dutenentzat.
* Arrasatetik kanpokoentzat **ARRASATE PRESS** oparitu nahi
dutenentzat.

**Gure kontu korrontean 2.500 ptako diru sarrera egin dezakezu
urriak 20a baino lehen kontu korronte zenbaki hauetako
batean:**

- **KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).**
- **EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).**

**Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria
zeinen izenean jaso behar den.**

Arrasate Press kanpotar bati bidali nahi badiozu

Izen-deiturak:
Helbidea:
Herria:

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 770815

Umegintzaz

Azer burrundara populazioarekin! Jaiotzek gora eta behera, bertan eta atzerrian. Kairon burutzen ari den Populazioaren III. Konferentzian, Vatikanok bere ohizko moral zaharkitua erakutsi digu- "vade retro kondoi maltzurra!"- eta Nazio Batuen Erakundeak (herri txiroen) superpopulazioaren arriskua saldu gura izan digu, beronen konponbidea ugalkortasunaren murriztean dagoela azpimarratuz. Konponbideak: "ugalkortasunaren kontrola" (informazio sexual zabala, antisorgailuak, behar izanez gero abortoa...) NBERen ustez eta "planifikazio familiarra" Vatikanoarenean (metodo antisorgailu naturalak bakarrik). Txirotasuna, garapena. Ipar-Hegoaren desoreka eta abarrekoak, hizki txikietan besterik ez dira agertzen, garbi dagoenean anti-sorgailurik onena garapenak eskeintzen duena dela. Ikusi besterik ez gure inguruan gertatutakoa - herrialde aberatsetan oro har-

Hau mundu aldrebesa: umei prakak eta patatak eskeintzeko ahalmena dutenek, ez dute umerik gura: ezer gutxi dutenek, ostera, ume ugari ekarriz (ez guran). Emakumeko 2,1 ume behar ei da belaualdien ondorengoa ziurtatzeko. European %0,7an izan gara, orain gorantz bagoaz ere. Eta Euskal Herrian Europako ugalkortasun tasa baxuenetakoa dugu. Ez al dugu

gure ondorengo belaunaldirik izango? Auskalo. Neronek izan gura dut seme-alabarik, bat baino gehiago gainera. Baina umegintzari buruzko eztabaidak hasi diren arte -aitortu behar dut- ez dut inoiz sakon pentsatu zergatik. Eduki gura ditudalako besterik ez. Sinplea ala ez, horrela da. Puntu. Eduki gura ez dituenak, ez ditzala eduki, bere eskubidean dago, jakina. Ahalik eta zoriontsuena izan gura dut, mundu guztiak bezala, suposatzen dut. Horregatik hautatzen ditut nire lagunak, horregatik noa mendira, horregatik egiten dut lan -eta bizitzeko, noski- horregatik mozkortzen naiz... eta horregatik eduki gura ditut seme-alabak. Oraingoz aukera kontua da, askatasun kontua, ez besterik.

Animaliak ere bagaren neurrian, noizbait gure espeziea, gizakumea, desageritzeko arriskuan balego, akaso beste modu batean pentsatuko nuke, ez dakit.

XABIER LETONA
"ATAXI"



GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...

ZUHAITZ
jatetxea



Tfnoa: 71 46 08


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalarren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Ibxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Eukeni Oibarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñantza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimilano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta.


I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Alkoholarekin
arazoak
dauzkazu?
Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek"
lagundu ahal
dizute!!

**Alkoholiko
Anonimoak**



Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

.....

Patxi Mendizabal zenaren oromenez

Aste honen hasiera Patxi Mendizabal Jaunaren heriotzarekin bat etorri da. Esperientziak eta mila bibentzia ezberdinez betetako 86 urte zituen Patxi eta arrazoi horregatik egokitu zitzaigun pertsona hau ezagutzea.

Patxi zen aste honen hasiera arte Arrasaten II. Errepublika (1933-36) egoniko lehen ikastolan ibilitako eta bizirik zegoen azken maixua.

Arrazoi horregatik egokitu zitzaigu behin baino sariago berarekin egotea eta gogoan ditugu bere kontakerak, orduko ikastolaren iraun beharra azaltze-reakoan: erabili zituen lehen liburuen mugak, gerrak Irten eta liburuak baserriko sakapean nola izkutatu zituen eta erregimen berriaren erregistroen beldurrez, zela erre egin behar izan zituzten, gerraren ondorioz sufritu behar izaten zituztenak e.a.

Gerra aurrekoek gain gerra ostekoak kontatzen ere bazekien, izan ere Aramaioko, Markinako eta Arrasateko Udaletxeetan (gurean hilabetez) idazkari izan zen.

Kontuetarako atsegina eta azken ordurarte burua argi izanik, bisitatu genuen egunetan hamaika kontuz gozatzeko aukera eman eta

gure kulturaren alde jarduten bakarrak ez garela erakutsi ere egin zigun.

Izan ere, Patxi, mende honetan hainbeste gauza pasa denik eta egoerak hainbeste buelta egin duelarik pentsetarik ere!

Bienbitartean, ikastolara joaten diren umeak, euren aurrekoek instituzio horren alde egin zuten lanean erreparatu barik eta ikastolak beti izan direlakoan, euskaraz ikasiko dute, sasoi haietan hainbeste nekerekin ereindeko haziak horrela fruitua eman duelarik. Eskerrikasiko, Patxi.

JABIER ETA ARANTZAZU

.....

Kaixo Gazteak:

Oporretan ondo, ezta? Nondik nora ibili zarete? Ederto bada!

Honez gero betiko mar-txan murgilduta egongo zarete. Tira bada!


Abuztuan, zuekin ahaztu garenik ez ezazue pentsa. Ahaztu? Bai zera! Sorpresa ederra prestatu dizuegu. Ez dakizuela zer den? Inork ez dizuela horretaz berba egin? Lasai, ez estutu, sorpresa hori zein den oraintxe bertan azalduko dizuegu.

Gazte-txokoak (Gazte Lokalak) San Andresen eta Musakolan, hilabete honetan zabaldu behar dira. Asteartetik ostiralera (5etatik 8etara) eta larunbatetan (4etatik 8etara) auzo horietako gazteek topagune bat edukiko duzue.

Lokal hauetan, hasiera batetan txoko ezberdinak erabilgai izango dituzue: eskulan, komiki eta aldizkari, jolas, musika eta informazio txokoak hain zuzen. Gerxeago, lokal hauek aldatu egin ahal izango dira zuen gusto eta proposamenen arabera. Bestalde, interesgarriak iruditzen zaizkizuen gaiak jorratu ahal izango ditugu, ikastaro, eskulan, festa, irteera eta horrelako ekin-tzen bidez. Laster elkar ikusiko dugulakoan, ondo segi eta agur.

TXATXILIPURDI

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispes kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Joan zara sekula Arantzazura erromes?



Rosario Aguado
Etxekoandrea
(41 urte)

Sekulan ez naiz Arantzazun izan. Lau urte daromatzat hemen bizi izaten eta beti nabil Arantzazura joan guran, baina oraindik ez naiz iritsi.



Jose Fernandez
Jubilatua
(69 urte)

Aurten ez naiz joan baina lehen urtero joaten nintzen. Nire kintakoekin joan izan naiz.



Ana Mari Elorza
Santa Agedako
langilea (42 urte)

Asko gustatzen zaidanez, sarri joaten naiz Arantzazura, baina inoiz ere ez erromes.



Jesus Agirre
Jubilatua
(73 urte)

Birritan joan naiz Arrasatek Arantzazura oinez. Ezkondu aurretik, berriz, Araotzen bizi nintzen eta orduan askotan joaten nintzen.



Begoña Martinez
Etxekoandrea
(48 urte)

Asko gustatzen zait, baina astebukaera askotan kanpora joaten garenez, erromes ez naiz sekula joan.




Anastasio Ibarluzea
Jubilatua
(70 urte)

Gaztetan bai, lagunekin joaten nintzen. Orain ere noizean behin joaten naiz, baina han betikoa dago.



Jone Lasagabaster
Langilea
(23 urte)

Sekula ez naiz erromes joan, baina Arantzazuko inguruak asko gustatzen zaizkit eta batzuetan joaten naiz.



Iñaki Telleria
Jubilatua
(77 urte)

Azkeneko aldiz orain dela bi urte joan nintzen erromes. Ilusio handia egin zidan oinez joateak.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualerria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutzegoria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzainak
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 9
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.
 Gaeuz:Guallar. San Antonio. Bergara.

Larunbata 10
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.
 Gaeuz:Estella. Matxiategi. Bergara.

Igandea 11
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Sta. Marina
 Gaeuz:Estella. Matxiategi. Bergara.

Astelehena 12
 Egunez 22.00ak arte:Azkoaga. Ferrerías.
 Gaeuz:Guallar. San Antonio. Bergara.

Astearte 13
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.
 Gaeuz:Estella. Matxiategi. Bergara.

Asteazkena 14
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.
 Gaeuz:Camacho. Oxirondo. Bergara.

Osteguna 15
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Sta. Marina
 Gaeuz:Estella. Matxiategi. Bergara.

9 OSTIRALA

ZINEA
 "Los Picapedra" 5etan, 7etan eta 9.30etan.

ARANTZAZUKO EGUNA
 Meza nagusia goizeko 11etan San Juan Bataiatzailearen parrokiak.

URIBARRI-ERGUINGO JAIK
 9.30etan diana eta etxafleruen jaurtiketa. 12etan I. jardunaldi gastronomiko-folklorikoa. 5.30etan haur jolasak. 7etan buruhandiak. 7etan auzoko hildakoentzako Meza. 7.30etan herri txikiteoa eta ordu berean jubilatuei luntx eskeiniko zaie. 11.30etan Rock jaialdia, Parabelum eta Arsenal taldeekin.

GATZAGAKO JAIK
 12etan Meza Santua. 12.30etan Laja eta Landakanda trikitilariak alaitutako herri poteoa. 1ean herri kirolak. 4.30etan mus eta briska txapelketak. 6etan umeen jolasak. 7etan Oinaz dantza taldearen saioa. 12etan Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

BERTSOLARIK
 Elorrioko Arriola kultur aretoan, gaueko 10.30etan. Bertsolariak: Iñaki Murua, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Beñat Gaztelurrutia, Unai Iturriaga, Igor Elorza, Jon Sarasua eta Maddalen Lujanbio.

10 LARUNBATA

ZINEA
 "Beethoven" 5etan. "Super detective en hollywood" 7.30etan eta 10etan.

URIBARRI-ERGUINGO JAIK
 9.30etan diana. 11etan Atletismoko probak Iturrieko pistetan eta ordu berean pilota txapelketa Iturripen. 4etan Mus txapelketa. 5etan txokolatada Olan zelaian. 6etan pony, txekor eta basurde jaialdia Olan zelaian. 7.30etan "Peña del bakalao" delakoak zurrakapotea eskeiniko du. 11etan dantzaldia "Anker" taldearekin.

GATZAGAKO JAIK
 12etan herri poteoa Legutioko trikitilariak. 2.30etan herri bazkaria. 6etan fandango eta arin-arin txapelketa. 11etan bolo txapelketa. 11.30etan gaupasa "Niko Etxart" eta "Sigr" taldearekin. 6etan txokolatada.

GAZTE AKANPADA
Gazte akanpada Degurixan, irailaren 9tik 11 bitartera. Irteera Urkulun arratsaldeko 6etan.

11 IGANDEA

ZINEA
 "Beethoven" 5etan. "Super detective en hollywood" 7.30etan eta 10etan.

ARANTZAZURA ERROMES
 Arantzazuko Santutegira erromesaldia. Oinez, autobuzez zein automobileren bidez, Arantzazu bideko Gesaltzan bilduko dira goizeko 9etan. Meza nagusia 11etan izango da. Erromesaldira autobuzez joan nahi duenak, Ekuador bidai agentzian har dezake txartela. Irteera goizeko 8.30etan Garibaiko geltokitik; jeitsiera eguerdiko ordubatean edo 5etan. Oinez joatea pentsatu dutenak goizeko 5.30etan elkartuko dira Kontzeziñon.

URIBARRI-ERGUINGO JAIK
 9.30etan diana erraldoi eta buruhandiekin. 12.30etan herri kirolak Arimazuriko plazan. 1ean Al-Andalus kultur elkartearen dantza emanaldia. 6etan pony, txekor eta basurde jaialdia. 7etatik 9.30etara "Txinparta" taldearekin dantzaldia. 12etan azken traka.

GATZAGAKO JAIK
 12etan Meza Santua, bertan Gorosarri abesbatza egongo da. 12.30etan herri poteoa Incansables txarangarekin batera. 1etan bertsolariak: Jon Sarasua, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. 5etan pilota partiduak. 10etan Eguzki taldearekin dantzaldia.

ESKULANEN ERAKUSKETA
 Mº Jesus Vazquezen "eskulanen" erakusketa zabalduko da Monterronen. Ordu-tegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.



GATZAGA ETA ERGUINGO JAIK ASTEBUKAERAN

12 ASTELEHENA**ZINEA**

"Super detective en Hollywood" 7etan eta 9.30etan.

ODOLEMATEA

Odolematea Arrasateko anbulategian, arratsaldeko 4.30etarik 8etara. Arabako odol bankua.

13 ASTEARTEA**ZINEA**

"Super detective en Hollywood" 7etan eta 9.30etan.

ODOLEMATEA

Odolematea anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

14 ASTEAZKENA**ODOLEMATEA**

Odolematea anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

JOKIN ZAITEGI LEHIAKETA

Jokin Zaitegi itzulpen laborren lehiaketa antolatu du AEDk, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Aurten go gaia: "Trudi bidezko komunikazioa 2000. urtean" izango da. Itzulpenak gaztelera ez den beste edozein hizkuntzatatik egin ahal izango dira, eta originalek 91z geroztik eginak beharko dute izan. Lanak epaitzerakoan testuaren interesa jendearekiko, itzulpenaren zuzentasuna eta euskararen dotoretasuna hartuko dira kontutan. Sariak: 25.000 pta eta finalistentzat 50.000 ptako akzesitak. Ikastetxeetan irailan banatuko da informazioa, baina aurrez eskratu nahi izanez gero, dei egin edo jo AEDra.

15 OSTEGUNA**ZERGAK ORDAINTZEKO GARAIA**

94ko ondasun higiezinaren gaineko zerga eta iharduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago. Borondatezko epea azaroaren 11ra bitartean izango da zabalik.

UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

Donostiara eta Bilbora, egunero joan eta etortzeko autobus zerbitzua antolatzeko asmoa du "Aixola" ikasleen elkarteak. Goizez nahiz arratsaldean, orduetegi desberdinaz. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezakezue izena, irailaren 23a baino lehen.

HITZALDIA


Irailaren 23an, ostiralean, Andu Lertxurdiren tertulia-aurkezpena: "Otto Pette: nire azken nobelaren inguruan", Oñatiko Kultur Etxean, arratsaldeko 7.30etan.

INSTITUTOA

Institutuko Guraso Elkarteak, irailaren 14ean, 15ean, 16an, 19an eta 20an Institutoko liburuak salduko ditu.

Arratsaldeko 6etatik 8etara.

UBI, BBB eta IEEen izena emateko matrikula zabalik dago irailaren 7tik 12ra arte. Ordua: 9.30etatik 1.30etara. Bestalde, ikasturte hasiera irailaren 30an izango da.

**PINTURA IKASTAROA**

Pintura ikastaroan izena emateko epea irailaren 12an, 13an eta 14an zabalduko da Monterronen. Orduetegi arratsaldeko 5etatik 7etara.

NAFARROA OINEZ

"Nafarroa Oinez" Beran, irailaren 18an. Bertara joateko autobus txartelak salgai daude, Hiren, AEDn eta Iturriotzen. Autobusa goizeko 9etan irtengo da Zaldibartik.

JUSTO GARATE BEKA

Bergarako Udalak, Justo Garate Arriola ikerlari eta medikuaren oroimenezko beka deialdia plazaratu du. Ikerketa lana euskaraz egingo da eta iraupena 11 hilabetekoa izango da, azaroaren 1etik lanean hasita. Bekaren diru zenbatekoa 935.000 ptakoa izango da. Eskabideak aurkezteko inprimakiak Bergarako Udaletxean jaso ahal izango dira eta epea iraila osoan zehar egongo da zabalik.

**ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA**

Zaldibar 94-95 futbito txapelketan parte hartu nahi duten talde guztiei jakinerazten zaie, datorren irailaren 20an asteartean, Monterrongo hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan, bilera informatiboa izango dela txapelketari buruzko zehaztasunak emateko.

“Gero eta ordu gutxiago lan egiten da asteen eta horren ordez, gure gaitasun pertsonalak betetzeko aisialdiko ordu gehiago izaten dugu.

Denbora librean zehar gertutik edo urrutitik lanarekin zerikusirik duten gaietara hurbiltzea askorentzat disparatea dela ere jakin arren, niri erabat normala iruditzen zait eta obligazio sistematiko batek adinako pisua izan barik, lanpostu bakoitzaren ezaugarrien inguruan garatzen den kulturaren hobekuntza pertsona bakoitzaren formazioa indartzeko bide izan daitekeela uste dut, lanpostu, funtzio, eginkizun edo erantzukizun bakoitzaren etorkizuneko eskakizun bakoitzaren aurrean.

Txarra da lanarekin torturatzea; bizi izateko behar den dirua ateratzea beste atsegin edo konpentsaziorik ez aurkitzea bezain txarra.

Kontua ez da ikasketa sistematikoak, konplexuak edo ohizko trebeziekin zuzenean erlazionatuta daudenak egitea. Egunero apur bat gehiago jakiteko denok daukagun jakinmin margin hori aprobetxatzea da kontua, bakoitzak duen lanbidearen mesedetan ideiak arindu eta zabaltzeko beharrezko elikagai bezala. Eta denboraren erabilpenaren zentzu egokia sortzen den neurrian posible da hori, eta atsegin ere gerta daiteke, bizitza jakintzaz betetzea baliagarri jotzen dugun neurrian, eta bide batez, bizitza aberastu eta zordun gareneko gizarte horrekin eskuzabalago izateko”.

J.M. Ormaetxea

lankide

“Nik ez dakit gaur egun euskal arrazarik ote den. Baina, duda izpirik ez, Euskal Herriak mendetan eraikitako balio izpiritual zein materialek hortxe diraute, iraungitzeaz egon badaitezke ere. Geuri dagokigu, berandu baino lehen, sendabideak aurkitzea, euskal arrastorik txikiena ere pikutara joan ez dakigun”.

Josemari Velez de Mendizabalek


Egunkaria

Zer da “Bidean” proiektua eta zein helburu lortu nahi dituzue?

Aurten ere “Bidean” proiektua abian jarri du Txatxilipurdi taldeak. Baina proiektua Txatxilipurdik gauzatu arren, bultzatzailea Institutoa izan dela argitu beharra dago. Hain zuzen ere, orain arte B ereduan ikasi duten hamabost urteko ikasleek, A eredia edo D ereduan jarraituko duten aukeratu behar dute. “Bidean” proiektuan parte hartuko duten ikasleak orain arte talde elebidunean ikasten egon eta orain D ereduan ikasten hasi nahi dutenak dira. Pausu hori emateko bultzadaxo bat behar dutenez, gu geu arduratuko gara euskara hutsean ikas dezaten animatzeaz.

Horrela, “Bidean” en izena eman duten hemezortzi ikasleak goizetan euskaltegira joango dira eta han euskara maila hobetzen ahaleginduko dira. Arratsaldetan, berriz, euskaraz ikasten duten hogeiren bat gazterekin elkartuko dira eta guztion artean denborapasako ekintzak egingo ditugu. Astebukaeretan ere norabait joango gara, proiektua hilabete honetan zehar aurrera eramango denez, asmoa ahal den eta denbora gehien aprobetxatzea da eta.

Lehenengo aldiz iaz egin zen gauza bera eta benetan arrakastatsua izan zela esan dezakegu. Joan den urtean parte hartu zuten guztiek D eredia aukeratu zuten eta proiektua bukatu zutenean, gainera, euskararen munduarekin hartuemanak ez mozteko taldea eratu zuten. Horrela jaio zen “Jo Ta Sue” taldea. Horregatik seguruenik, aste honetan hasi diren ikasleek ere hile bukaeran beste talde bat eratuko dute.



Unai Zeziaga

Txatxilipurdiko begiralea

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETZA

Tfnoa: (943) 79 24 58



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea Tfnoa: 77 14 24

Sute txikia

Santa Agedako ospitalean sute txiki bat gertatu zen ostiral arratsaldean. Gaiso batek su eman zion Inmaculada unitateko eritegiari eta gela erre egin zen. Suak gaisoa ere barruan harrapatu zuen eta zauri larririk izan ez arren, Gurutzetako ospitalera eraman zuten. Sua itzaltzera Zubillagako suhiltzaileak joan ziren.



Eguraldiak kale baina Marixekan jai

Eguraldiak lagundu ez arren, aramaioarrak Marixekako ermitara hurbildu eta urteroko jai ospatu zuten. Baina ez aramaioarrak bakarrik, inguruko herrietako beste lagun batzuk ere Deikunde Amabirjinarengana gerturatu ziren. Goizean, futbol partidua jokatu zen eta ondoren meza izan zen. Eguerdiko 3etan, berriz, gerturatu ziren guztiak bazkaltzeko batu ziren eta arratsaldean, herri kirol eta erromeria izan ziren.

berri erosi beharko duten
aztertzen izan dira
langileak. Oraindik
zenbateko galerak izan

diren zenbatu ez duten
arren, itxura denez nahiko
handiak izango dira. Bake
epaitegiaren aurkako erasoa

Epaitegia berriz ere zabalik

Astelehenean lanean hasi ziren epaitegiko langileak baina betiko funtzioak betetzen datorren astean hasiko dira. Aste honetan zehar, hildakoen eta jaiotakoen aktak jaso dituzte bakarrik. Horretaz gain, dokumentazio aldetik zer erre zen ikusten eta material aldetik zein tresna

irailaren 29an egin zuten ezezagun batzuk.

Umezaintzan ikasturtea hasi

Asteartean, umezaintzak atek zabaldu zituen. Martitzenean, joan den ikasturteko umeak hasi ziren eta egun bat beranduago, hasi berriak.

Danimarkarrak Saiolanen

Danimarkako talde bat Eskola Politeknikoko Saiolan bisitatzen izan zen asteartean. Langabezia euren herrialdean ere pisu handia hartzen ari dela eta, horri aurre egiteko esperientziak ezagutzeko asmoaz etorri dira eta han egin nahi dutenerako animoak harturik joan dira. Euren esanetan, gurean gauza interesgarriak ezagutu dituzte.

YOSUTHERMIK
VENTANAS AISLANTES

CARPINTERIA
POLIURETANO
PVC
ALUMINIO

Fabrika eta erakusketa: KATAIDE Poligonoa, 4. pabilioia
Tfnoa: 77 01 57



BEGOÑA LASAGABASTER *

Zer da Jabetza Hiritarren Ganbara?

Gipuzkoako Jabetza Hiritarraren Ganbara Ofiziala zuzenbide publikoko gorpuzio bat da, pertsonalitate juridiko propioa eta bere helburuak aurrera eramateko gaitasun osoa duena. Helburu nagusitzat ondoko hauek ditu: Jabetza hiritarraren babesa, bermea edo defentsa eta ordezkapena. Beraz, ez du aberas nahikeririk, helburu soziala baizik.

Gipuzkoako Jabetza Hiritarraren Ganbara ez da administrazioaren zerbitzuetako bat, hiritar jabeek mende hasieran sortutako entitatea da, euren interesak bermatu eta defendatzeko eta horrela jarraitu du gaurdaino.

Gipuzkoako ganbara ez du inongo organismo ofizialek zuzentzen, ez eta subentzionatzen ere. Jabe-

ak dira horretaz arduratzen direnak, urteroko kuota txiki bat ordainduz bere independentzia eta izaerarako hori delarik sarrerarik nagusia. Ganbararentzat garrantzitsuena jabe gutien elkartasuna da.

Ganbara honek baditu profesional talde baten partaideak bere zerbitzura,

zeintzuek, hiritar izaerako jabeen inmuebleak, hala nola, etxebizitzak, garajeak, merkatal lokalak etab. defendatzeko lan egiten duten.

Aldi berean, jabe gutien interes kolektiboak bermatzen laguntzen du, bai beharrezko desjabetzapenetan Lurraldetar Juradon edo Balorazio Juntan, eta baita ekimen propioz edo jabe kolektiboen eskaeraz gorpuzio honek Gipuzkoako udalen aurka tasa eta tributoei buruz planteatutako rekurtsioetan ere.

Arrasaten, hiritarren ganbara ofizialaren kideei jabetza hiritarrari dagozkion izaera juridikoko ahozko kontsultak erantzuten zaizkie, aurrez telefonoz deituz.

* ABOKATUA

ARRANTZAZU LOIDI

.....

*Etxe jabeen
interesak
defendatzea da
Ganbararen
zeregina.*

USTEAK USTE

JOLASERAKO ASTIA

Ikasturte hasieran, umeak eguneroko martxara, nagusiak bezala. Eta sasoi honetan iragarkietan bezala, kurtso berriaren aurrean dirua gastatzeko aukera, erreklamua nonahi: Eskolarako materiala, negurako erropak...

"Zuek adina gauza euki izan bagenu, geuk ere ikasiko genuen zerbait" entzun izan dugu txikitari makina bat bider; gogait eragiten zidan konparaketa horrek. Baina gauza bera pentsatzen harrapatu dut orain neure burua. Ikasteko eta erabiltzeko baino erakusketarako hobeak diren eskola-materialak (lapitzak, plumierrak, kitaborroiak, kuadernoak... gure gurasoek esaten duten moduan). Eta denetik estreinatuta, harro joango dira, Jaunartze osteko erregaluekin bezala. Baina ikasturte hasieran ez da hori aita-amek egiten duten gastu bakarra. Aurrekontuaren barruan sartzen dira **ingles-musika-dantza-futbol**erako behar direnak, matrikulak, ordenagailu erosketa eta partikularren aurrikuspena ere. Horretan ere zaharturik behar dut, izan ere urte gutxian aldaketa izugarria izan dela begitantzen zait. Gure garaian (oraindik lotsa ematen dit espresio hau erabiltzeak), ez genuen hainbesterainoko agenda esturik, eta ikastolatik bueltan bokadiloak, jolasak eta etxekolaneak baino ez ziguten itxoiten. Ez dut uste mundua hainbeste aldatu denik, eta zeuk izan ez duzuna umeari inposatu eta ito beharrean, utziz, agenda horretan jolas egiteko astia ere. Antolatatu barik, ahal bada...

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

IBARRA
Garajea S.L.

 **EBRO NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



230 miloi inguru kostatzen da Ferixalekuko ikastola berriarekin.

Eraikuntza eta ikasturte berria prest ditu SFX ikastolak

Irailaren 14ean San Frantzisko Xabier ikastolak eraikuntza eta ikasturtea estreinatuko ditu. Beraz, obrak joan den urteko irailean hasi zirenez eta abuztu bukaerarako amaituak zirenez, urtebeteko epea nahikoa izan da Ferixalekuko ikastola goitik behera berritzeko.

Edurne Eraunskin, SFXeko zuzendariaren esanetan eraikuntza horrekin etapa berri bat hastera doa ikastola: "alde batek 12-16 urte bitarteko ikasleak Ferixalekuko ikastolan batuko dira eta erreformari aurre egiteko behar diren zerbitzu guztiak bertan aurkituko dituzte ikasle zein irakasleek. Gainera, SFX ikastolaren zerbitzu guztiak, administrazioa, zuzendaritza eta idazkaritza, Ferixakeluan geratuko dira zentralizatuta."

Ohizko ikasgelez gain, besteak beste fisika eta kimika laborategiak, musika, plastika eta informatika gelak, gimnasioa eta argazki tailerra moldatu dira eraikuntza berrian. Nobedade bezala, berriz, mediateka jarri dutela aipatu behar da. Mediateka zerbitzua, gela guztiakin konektatua izango da eta ikasleek, edozein gairi buruzko informazioa eskatu ahal izango dute. Bestalde, bi jangela ere izango ditu Ferixalekuko ikastolak. Bata beheko solairuan, irakasle eta gurasoen-

tzat eta bestea bigarrean, ikasleentzat.

Ferixalekuko eraikuntza berriztuta ikustea, urtetako lana izan da irakasle eta gurasoentzat. SFXeko zuzendariaren iritziz: "urte guzti hauetan lanean izan den batzordeak oso paper garrantzitsua bete du eta bazkideen interesa ere eskertzekoa izan da, erabakiak hartzeko orduan ez baitute huts egin. Inor kanpoan uzteko asmorik gabe, Antton Alberdi gogoratu nahiko nuke, bera izan baitzen proiektuaren motorra. Bide batez, Uribe auzoko bizilagunei eskerrak eman nahi nizkieke 16 urtetan zehar lokalak uztearen eta baita JMA enpresari lokalak utzi dizkigulako."

IKUSMIRAN: HEZKUNTZ PROIEKTUA


Eraikin berria abian jartzea ez da SFX ikastolaren ikusmiran dagoen zeregin bakarra. Ikastolak aurrerantzean jarraituko duen norabidea finkatu eta garatuko dituen baloreak zeintzuk izango diren zehazteko, hezkuntz proiektua egiteari ekingo dio ikasturte honetan. Urrats horretan bazkide guztiak izango dute parte hartzeko aukera eta prozesua teknikoki zuzentzeaz, LKS arduratuko da. Garatu nahi diren baloreak lortzeko ikastolak zein antolamendu behar duen zehaztea izango da LKSren lana.

Ikasturtearen hasiera

Egun hauetan hasiko da ikasturtea eskola desberdinetan. Hilaren 12an: Erguin, Musakola eta San Andres Herri Eskoletan; San Viator ikastola eta La Merced ikastetxean. Almenen txikienak 14an, batxilergo orokorrekoak eta OHOkoak 15ean eta goi batxilergoak 19an. Eskola Politeknikoan, batxilergoak 20an, injineritza lehen mailakoak 21ean eta bigarren eta hirugarren mailakoak 23an. Institutukoak, berriz, 30ean.

Txertaketa


Irailaren 19an gripearen aurkako txertaketa kanpaina hasiko da Arrasaten. 65 urtetik gorakoek nahiz gaisotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoek izango dute txertoa hartzeko aukera. Urriaren bukaera arte, txertoa hartu nahi duenak anbulategira jo dezake edo bestela, egun zehatz batzutan auzo bakoitzeko alkatetza edo jubilatutako etxera. Arrasateko lehen mailako asistentzia taldea, irailaren 26an San Andreseko alkatetzan izango da, 27an Abaroan, 28an Uribarriko jubilatutako etxean, 29an Santamainakoan eta 30ean Musakolakoan, urriaren 3an Gesalibar eta Garagartzako alkatetzetan, 4ean Udalan eta Meatzerrekan eta 5ean Bedoñako alkatetzan.



ZARRAOA
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE
Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 25 60
ONATI





Korporazioak ez ditu bulegoak langileen esku utzi nahi.

Atzerapausua Cerrajera eta Transformadoseko arazoan

Cerrajera eta Transformadoseko arazoari irtenbidea aurkitzea zaila izango dela esan daiteke, Hazienda, Gizarte Segurantzaz, sindikatu, Korporazio eta Eusko Jaurlaritzaren artean uztailaren 28an egin zen bilerraren ostean. Uztailaren erdialdean herriko sindikatuera iritsi zen idatzian esaten zenez, Korporazioa prest azaltzen zen enpresetako akzioak prezio sinbolikoan saldu eta lurzorua zein ofizinak langileen esku uzteko. Uztaila bukatu ondoren, osterara, bulegoak langileen esku uzteko prest ez zegoela eta jubilatuta daudenen indennizazioa ere ez duela ordainduko adierazi zuen Korporazioak. Batzar horretan gainera, bi enpresek duten zorra barkatzeko asmorik ez duela garbi utzi zuen Foru Haziendak. Sin-

dikatuen esanetan, Hazienda eta Gizarte Segurantzaz duten mila miloitako zorra Korporazioarena da eta hark ordaindu beharko luke. Sindikatuen ustez, gainera, LKSk egindako planak dioen bezala, zorra langileen gain utzita enpresek ezingo lukete aurrera egin. Bi enpresetako langileentzat eta sindikatueta arduradunentzat gogorrak izan dira azken berriak. Gainera, Cerrajerako langileak lanean irailaren lehenan hasi baziren ere, Transformadoseko 90 langileetatik hamabosti bakarrik deitu zieten lanean hasteko. Bitartean, aspaldian bezala langileek kontzentrazioak egiten dituzte eta arazoari dagokionez, laster beste bilera bat egingo dute orain arte bildu direnek.

Gazte txokoak

Datorren astean irekiko dira, Txatxilipurdi taldeak 14tik 17 urte bitarteko gazteentzat Musakola eta San Andres auzoetako alkatetzetan antolatu dituen gazte txokoak. Txoko horietara hurbilduko diren gazteek, Txatxilipurdik antolatutako ekintza desberdinetan parte hartuko dute baina eurek ere gauzak antolatzeko aukera izango dute. Gazteentzako lokalak arratsaldean izango dira zabalik.

Udal irratia baimen zain

Arrasateko Udal Irratiak, seinalea igortzeko aparailua eta Eusko Jaurlaritzaren baimena behar ditu emititzen hasteko. Abuztuaren zehar aparailu teknikoak jarri dituzte eta probak egiten hasiko dira laster. Arrasate Pasealekuan dagoen lokala moldatzeko eta irratia ekipatzeko 7 miloitako inbertsioa egin du Udalak. Irratiaren ardatza herriko informazioa izango da eta programazioa zehazteko, herriko taldeekin harremanetan hasiko dira irratiko langileak.

LARUNBATETAN ERE BAI



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

94 - 95 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

INGELES

ALEMANA


FRANTSESA

AHIZKE S.COOP

Araba Etorbidea, 4 20500 ARRASATE Tfnoa: 79 03 12

AHIZKE S.COOP

Olakua, 14 20560 OÑATI Tfnoa: 71 60 00



Uztailaren 29an heldu zen Arrasateko Udalera.

Maltzaga-Urbinauren zirriborroa udaletxean aztergai

Eusko Jaurlaritzako ingurugiro sailak udal desberdinetara Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan bidali duen zirriborroa uztailaren 29an heldu zen Arrasatera.

Udalak iraila bukaera arteko epea izango du proiektu horrek ingurugiroan zein inpaktu izango duen aztertu eta horren gaineko alegazioak aurkezteko. Horrek hala ere, ez du esan nahi azken proiektua egina dagoenik. Txosten hori aztertzen udalak hasiko diren arren, proiektua egiten denean partikular eta taldeek ere izango dute alegazioak aurkezteko aukera.

Hala ere, aipatzekoa da heldu berri den txostena, "Maltzaga-Urbina autopis-

ta" izenez aurkezten duela Eusko Jaurlaritzako ingurugiro sailak. Arrasateri dago-kionez eta beti zirriborro horren arabera, bide berria saihesbidearen gainkaldetik pasako litzateke eta Epele ingururako, berriz, aukera desberdinak aipatzen dira.

Herri Batasunak bestalde, azaldu ditu txostenaren inguruan hainbat kezka. HBren ustez, txostena opor garaian heldu da eta abuztuan zehar ezin izan da ikertu eta alegazioak aurkezteko denbora gutxi eman dela salatu dute. Alderdi horren ustez gainera, planoa eskala handiegian dago egina eta era horretan ezin da antze-man ingurugiroan zelako eragina izan dezakeen.

Hauteskunde sindikalak

Irailaren 15etik 95eko abenduaren 31 arte hauteskunde sindikalak egingo dira. Dagoeneko herriko enpresa batzuetan ezarri dute hauteskunde data. Irailaren 26an udaletxeko langileek emango dute botoa, 17an Cartonajes Esmakoek eta Arrasate Musikalekoek 15ean. 90ean egin ziren hauteskundeetan eta Deba Garaiari dagokionez, ELA sindikatua izan zen lehen indarra, CCOO bigarrena, LAB hirugarrena eta UGT laugarrena. Hauteskunde sindikaletan ezingo dute botoa eman, 16 urte baino gutxiago dutenek eta lanean hilabete bat baino gutxiago eramaten dutenek.

Atxilotua

Asteartean, Alberto I.L. 42 urteko arrasatearra atxilotu zuen Ertzaintzak, Donostiako Salbean sorturiko istiluetan parte hartzearen salaketarekin. Ertzaintzak, abuztuaren 14an egindako bideo grabazioetan oinarrituta atxilotu zuen arrasatearra.



URONDO

elektrizitatea

* **Elektragaiak**

* **Instalazioak**

* **Automatismoak**

* **Proiektuak**

* **Argiztapena**

* **Bobinaketak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Santi Etxebarria "Zurdo" pilotariak 75 urte beteko ditu ostiralean, hilaren 9an. Pilota mundua bihotzean darman gizona dugu eta pilotarien artean eta gazteen artean la-

guntasun gehien ematen duenetakoa eta presentzia garrantzitsuena ei da gainera. 64 urte zituela jantzi zen zuriz azken aldiz. Zorionik beroenak Zurdo, eta urte askotarako.




Maritxu Balanzategi arrasatearrak miloi erdiko saria irabazi du Euskadi Irratiko "Izkutuko pertsonaia" saioko lehiaketan. Bere loba **Unai**k, lehiaketan esan zuten galdera bazekiela ikusita, irratira deitu zuen erantzuna emateko eta bere

izena eta izebarena eman zituen. Astelehenean irabazlearen izena aukeratu zutenean, Maritxuk ezuste galanta hartu zuen, berak ez zekien eta ezer zozketaren gainean. Oraindik ez daki diruarekin zer egingo duen, baina lobarri zeozer emango diola esan digu. Zorionak!



Maria del Mar Lopez de Ipiña mondrautarra dago eta saria astearrean jaso zuen. Ekai- izan da BBV banketxe- neko zozketan ostera, ak uztaleko zozketan beste arrasatear bati, saritu duen apartamen- Xabier Arizabaletari tuaren irabazlea. Apar- Ford Mondeo bat toka- tamentua Almeriako tu zitzaion. Zorionak Roquetas de Maren bioi!



"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56



Visitación Guridik, 72 urteko arrasatearrak eta **Pablo Aizelaik**, 74 urteko Oiñarriarrak, urrezko eztaiak bete zituzten uztailaren


13an. Visitación eta Pablo 1944ko uztailaren 13an ezkondu ziren eta 50 urte elkarrekin pasa ondoren, uztailaren 16an familiartekoekin



ospatu zuten. Meza Musakolako San Isidro ermitan izan zuten eta ondoren bazkaria "Soraluze jatetxean". Zorionak bioi!



Andoni Iñurritegi, 9 urtekoa izan da Arkok antolatutako udako postal lehiaketako irabazlea. Andonik Malagatik bidali du postala eta bertan Santamasetako txerria aurkitu duela esan digu. Txerria, oso moreno ei zegoen eta mondrauetarrei gorantziak bidaltzeko esan zionez, postala idatzi digu. Jaso ditugun beste postalak oso leku desberdinetatik etorri zaizkigu: Formentera, Girona, Islandia, Ekuador, Benicasin, Kuba eta Arrasateetik bertatik, besteak beste.



**FELIPE
MADINA
ZURAK**


Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

**URRATS
AHOLKULARITZA**

CARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

94-95erako EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA.
2,3,4 eta 5 ordutako erritmoak
Enpresentzat ikastaroak



ERRITMOAK	IRAUPENA
Egunero 2 ordu	Iraila-ekaina
Egunero 3 ordu	Iraila-ekaina
Egunero 4 ordu	Iraila-abendua Urtarrila-martxo
	Apirila-ekaina
Egunero 5 ordu	Iraila-otsaila Otsaila-ekaina

Bekatze sistema eta dirulaguntzak
ditugu. Galde ezazu.

MATRIKULALDIA

Irailaren 1etik 16ra arte

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 10.00 - 13.00
Arratsaldez: 15.00 - 18.00
16 urtez gorakoentzat

PLAZA MUGATUAK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
ARRASATE


Ikasturtearen aurrean 3 aurpegi desberdin

Seme-alabak ikastera eramateak gastu handia eskatzen du gaur egun. Matrikulak, eskolako materiala, jantziak eta liburuen kostua zenbatzen hasi ezkerro, diru kopuru haundiaren aurrean aurki gaitzke. Esaterako, ikasleek behar dituzten liburuak 8.000 ptztatik 15.000 pta bitartean egon daitezke. Eskolako materiala (kapritxozkoa behintzat) gero eta bitxiagoa dela kontutan izanda, are eta garestiagoa irteten zaigu. Guzti honetan, hiru protagonista nagusi ditugu besteak beste eta euren iritziak jaso nahi izan ditugu.

1. -Ikasturte hasiera igartzen duzue? 2. -Zer da gehien saltzen

1.-Bai, jakina, jende gehiago ibiltzen da. Iraileko lehenengo egunetan batez ere, 6 urtetik 16 urte bitarteko bezeroak izaten ditugu. Hilabete bukaeran eta urriaren hasieran 17 urtetik gorakoak etortzen dira.

2.-Irakasleek agendak. Ikasleek eskolako materiala erosten dute, kuadernoak, boligrafoak... eta hasieran



**Josu Uriarte
(Tamayo)**

gauza kapitxosoak erostea gustatzen zaie.



**Paco Gonzalez
(Okendo Kirolak)**

1.-Irailean mugimendu gehiago izaten dugu. Ume txikiak gurasoekin etortzen dira eta nagusiagoak bakarrik.

2.-Garai honetan zapatilak saltzen ditugu batez ere. Neguko moda osoa datorrenean txandalak eta forro polarrak izaten dira gehien saltzen direnak.

1.-Eskolan hasi aurretik zer erosten duzu? 2.-Aurreko urteko gauzak aprobetxatzen dituzu?

1.-Kuadernoak, arkatzak, liburuak.... horrelako gauzak erosten ditut, ikastetxean hasten naizenean beharrezko izango ditudanak.

2.-Bai, batzuk aprobetxatzen ditut, nahiz eta zerbait berria erostea bati gustatu.



**Cristina Parra
13 urte**



**Iraitz Diaz
14 urte**

1.-Liburuak eta kuadernoak.

2.-Bai, gauza gehienak aprobetxatzen ditut.

Zenbateko gastua izaten duzue ikasturte hasieran?

-Aurten ez dut horrenbestekorik, semea REM egiten ari da eta ez du liburu asko erosi behar, fotokopiak erabili behar dituzte gehien bat eta.



Anparo Unzueta



Mª Carmen Martinez

-Izugarrizko gastua izaten dut, hiru seme-alaba ditut; liburuak erosten eta ikastetxeetako matrikulak ordaintzen diru asko joaten zait. Esaterako, seme nagusiaren liburuetan 16.000 ptako gastua izaten dut eta bigarrenarenek 8.000 pta balio dute. Beraz, kontuak atera.

Urterik onenak

Maidier Egües

Gazte askoren ametsa izaten da nolabait. Eskola bukatzean etxetik kanpo ikastera joatea eta, noski, horrek atzetik dakarren guztia: Nolabaiteko "independentzia pertsonala" lortzea, lagunekin etxe bat konpartitzea eta norberaren kapritxoraguna antolatzea. Unibertsitateko ikasleen bizimodua da hau, askorentzat, "bizitzako urterik onenak".

Lehenago edo beranduego ikasle guztiei heltzen zaien garaia izaten da hau, askok diotenez, "bizitzako urterik onenak". Kurso hasiera gertu dagoela eta, lehen aldiz etxetik irtengo zarenok ondo pentsatu

beharko duzue nola antolatuko duzuen ikasturte berri honetan zuen bizitza. Aukerak ugariak dira: nagiegia bazara eta kanpoan egon ezker amaren bazkaria faltan botako duzula uste baduzu, autobusez joan eta etorrian ibil zaitezke; zure kapritxora ibili nahi baduzu eta pisu batean sartzeak dakarren erresponstabilitate zerrendak kezkatzen ez bazaitu, sar zaitez pisu batean; lagun pila bat ezagutu nahi baduzu, ordutegien kontuak gehiegi axola ez badizu eta karrerako lehen urtean lasai ibili nahi baduzu, zoaz erresidentziara.

"AIXOLA": EGUNERO JOAN ETA ETORRI

Eibarko ikasle talde batek antolatutako "Aixola"

izeneko zerbitzua da Unibertsitateko autobus antolatzen dituenena. Talde hau, Eibarren sortu zen joan den ikasturtean eta urtebeteko esperientzia bakarrik izan arren, 650 bat ikasle mugitu dituzte. Eibar, Elgoibar, Ermua, Eskoriatza, Arrasate, Bergara eta Sorluzeko ikasleak dira zerbitzu honetako bezeroak. Eskoriatzatik eta Eibartik 13 autobus ateratzen dira egunero eta herriz herri ikasleak jasoz joaten dira Bilbo nahiz Donostiako unibertsitateetako ateetan utzi arte. 3 aukeretatik, merkeena da: Ikasle bakoitzak 11.000 pta. ordaintzen du hilerok.

ERRESIDENTZIAK: ALTERNATIBA EROSOENA

Baita garestiena ere, nahiz eta batzuen eta besteen artean diferentzia handiak egoten diren. Unibertsitadedun hirietan ugariak izaten dira, baina garaiz ibili behar izaten da leku bat aurkitzeko. Monjen erresidentziak dira ezagunenak eta erosoak izan arren, badituzte desabantailak ere: janaria

A

maren jatorduak faltan botatzen badituzu, autobusean joanetorrian ibil zaitezke; zure kapritxora ibili nahi baduzu, sar zaitez etxebizitza batean."



Ikasleen etxebizitzetako "desmadreak" oso ezagunak izaten dira.

Autobusa, etxebizitza ala erresidentzia?


ez ei da oso ona izaten eta ordutegiari dagokionez ez dira batere eskuzabalak izaten (gaueko 11etarako residentzian egon behar izaten da eta oso baimen gutxi ematen dute jai batera edo bestera joateko). Abantailei dagokienez, jende asko ezagutzen da, sekula ez zara bakarrik egoten eta ohea egiteaz besterik ez duzu arduratu behar.

Dena dela, badaude erresidentzia mistoak ere, Bilbon kasu: EHUK antolatuta du eta neska nahiz mutilak bizi dira bertan. Ez dago ordutegi eta ikasleak askatasun osoz mugitzen dira. "Desmadre" handiak sortzen omen dira.

Erresidentzien prezioak, hileroko 35.000 ptatik 70.000ra bitartekoak izaten dira.

ETXEBIZITZA: INDEPENDENTZIA TOTALA

Alternatiba ezagunena eta gustokoena omen da, baita lan gehien ematen duena ere. Lehenengo eta behin, argi eduki behar da etxea norekin konpartitu nahi den; ezezagunekin sartzeari arriskutsua izaten da. Itxurazko bat aurkitzeko, kurtsua bukatu bezain laster hasi behar izaten da bilatzen, ekaina edo uztailean. Abantailen artean, independentzia eta norbere burua antolatzen ikasten dela; desabantailak: "Desmadre" ugari gertatzen dira ("party" famatuak), ez da gehiegi ikasten eta pisuaren garbitasuna egin behar da (nahi izaten gero, jakina). Prezioak era guztietako dira. Normalean 16.000 ptatik 25.000ra bitartean ordaintzen du bakoitzak hileroko.



Manu, 21 urte
Irrati eta Telebistako
ikaslea

"Hasieratik izan nuen garbi joan eta etortzearena. Alde batetik, pisua bilatzeko oso nagia naizelako; bestalde, askoz garestiagoa delako eta azkenik, pisu batera banoa, "desmadratu" egingo naizela badakidalako."



Belen, 20 urte
"Gizarte
Graduatuko"eko
ikaslea

"Lehen urterako nahiago nuen erresidentziara joatea, badakizu, hirian piska bat moldatzen ikasi arte... Gusto nengoenez, erresidentzian geratzea erabaki nuen. Erresidentzian lagun pila bat egiten da. Txarrena ordutegiarena da; nire erresidentzia monjena denez, ordutegiarekin ez dira batere eskuzabalak: 11etarako "etxean" egon behar!"



Agustin, 20 urte
Geologiako ikaslea

"Hasieran Informatika ikasten hasi nintzen Donostian eta pisuan egon nintzen. Oso erreata bukatu nuen eta Geologia ikasten hasi nintzen. Joan eta etorri egiten nuen baina bigarren urtean, praktika pila bat nituen pisura joan nintzen Arrasateko lagun batzuekin. Egia esan, oso ondo pasa dut baina ez da gehiegi ikasten. Dena dela, norbere erara moldatzen ikasten da."

Nobatoa bazara...

Nor ez da izan broma ezagun hauen biktima? Kurtso hasieran, lehen aldiz residentzietara heltzen direnei egiten zaizkie eta batzutan, ez dira batere barregarriak izaten. Aurten erresidentzia batera bazoaz, kontuan izan agian nobatada hauek izango dituzula zai...

- Zure jantzi guztiak beste norbaiten armairuan aurki ditzakezu goiz batean.
- Gauean zure logelara sartuko dira eta oinetako bat izkutatuko dizute. Hurrengo goizean ez duzu oinetako pare bat bera ere osorik aurkituko. Ea nola konpontzen zaren ortozik joan nahi ez baduzu...
- Dutxan tinta sartuko dizute. Dutxatzera zoazenean, ur tintatua aterako zaizu: Txerrikeria hutsa!
- Medikuntzako ikasleek praktiketarako erabiltzen dituzten xagu eta intsektuak ez ohizko tokian aurkituko dituzu: zure oheko izaren artean, adibidez.
- Iratzargailua hartu eta goizeko 4etan edo 5etan jarriko dizute. Iratzargailua logelako txoko zailenean izkutatu eta gauean jotzen hasten denean, ezin izango duzu aurkitu.
- Gauerdian lotan zaudela, erresidentziako beteranoak logelara etorriko zaizkizu eta dantzarazi, kantarazi edota txisteak kontaraziko dizute. Kasu egiten ez badiezu... dutxara!
- Agian, gauean kaletik pasiotxo bat egin beharko duzu pijamaz.
- Oheetako muelleak kenduko dizkizute: Eztatzen zarenean, lurrera eroriko zara.
- Lehenengo astean zehar, nobatoen "L" a bizkarrean itsatsita eraman beharko duzu eta beterano baten alboan pasatzean, "Egunon beterano!" esan beharko diozu.
- Tebista-gelako siloi onenak hartzeko pribilegioa daukate beteranoek.
- Neguan logelako leihoak kenduko dizkizute: gau bat behintzat, fresko-fresko igaroko duzu.
- Zure erresidentzia Bilboko Deusto auzoan badago, Deustoko zubi ezaguna zure hortzetako zepi... garbitzera joan beharko duzu gauean...
- Unibertsitatetik bueltan, logelako atea zabaldu eta ez duzu hautsik ere aurkituko.
- Medikuntzako ikasle nobatoa bazara, adi: Hildakoekin lehen aldiz praktikak egitera zoazenean eta hildakoaren kamilara gerturatzen zarenean, izara azpian dagoena ez da hildakoa izango. Sekulako sus...

Beldurtzeko modukoa

la egunero entzuten ditugu kalean ondoren jaso ditugunak bezalako komentarioak, bihotzeko arazoan gainean: "Hainbeste zaindu behar, hainbeste zandu behar, zertarako?, azkenean osasuntsu hiltzeko", edo honelako beste batzuk: "total... zerbaitekin hil behar da!".

DATU HOTZA ETA HOTZIKETAKOIA

O.M.S. (Organización Mundial de la Salud) delakoak aditzera eman dugenez, bihotzeko gaixotasunak gaur egungo heriotz arrazoiaren %20 izatetik, heriotz arrazoiaren artean %40 izatera iritsiko dira 2.015. urtean. Hau da, laster, ia etzi bertan! Hori dela eta, aurrez aipatu ditugun antzeko komentarioek arazo horren aurrean informazio eta formazio ez handia erakusten dute.

KANPAINA

Hori gutxi balitz, osasungoaz arduratzen diren profesionalak ez dira asper-

tzen bihotzeko gaixotasunen ugalketaren aurrean prebentziorako kanpainak egi-teaz.

INFORMAZIORIK EZA OTE DA, BERAZ, BENETAN ARAZOA?

Bihotzeko arazoaren arrisku-eragileak zeintzuk diren galdetuko bagenu, hala ere, denen zerrenda egingo luke jendeak azkar asko, gure gorputzari nola eragiten dioten ere azalduaz; eta ez hori bakarrik, arrisku horien aurrean zer elementurekin borrokan egin dezakegun azaltzeko gai izango zinatekete zuek zeuek ere. Zer egin behar dugun eta zer ez.

Begibistakoa da ez dela informaziorik ezak eragindako arazoa; orduan, zertan hutsegiten dugu? Teoria hain ondo baldin badakigu, praktika zergatik ateratzen zaigu hain gaizki?

ARRISKUEN ADIERAZLEEKIN ATZERA ETA AURRERA

Zelabait ezberdintzearen, adierazleen artean,



nahita aldatu ezin ditugunak eta alda ditzakegunak bereiztu behar ditugu. Aldaezinetan, sexua, adina eta familiaren antezedenteak daude, herentzia.

Adina: Denok dakigu adina zenbat eta aurrerago, bihotzeko arazoak izateko orduan eta probabilitatea gehiago izango duguna, nahiz eta gaur egun bihotzeko gaitzak adinaren arabera koak ez izan, eta gero eta jende gazteagoak izaten dituen arren era honetako gaixotasunak.

Sexua: Gizonezkoek emakumezkoek baino arrisku gehiago izaten dute, gaur egun ezberdintasun hauek

parekatuaz doazen arren.

Herentzia: Denok dakigu familian bihotzeko arazodunen bat izan duenak aukera gehiago izango duela gaixotasun hori jasateko.

Faktore aldagarriei dagokienez, hain ondo eza gutzen ditugun horiek dira, gure "modus vivendi" a dela eta, bizitzaren aurrean daukagun jarreragatik, gure alde edo erabat gure kontra izan ditzakegunak. Aipatu baino ez ditut egingo, aurrerago helduko diegu eta berriz ere. Loditasuna (pisua), tentsio arteriala, elikadura, tabakoa, estresa eta sedentismoa-ariketa fisikoa dira.

ATHLON KOOP. E.

**URRIN
EDARITEGIA**

Etxeko janari bereziak

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

SORTU
INFORMATIKA, S.L.

INFORMATIKA ZERBITZUAK

LORAMENDI, 7 BEHEA ARRASATE, ☎ 77 12 33

- NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA
- EKIPAMENDU INFORMATIKOIA
- ZERBITZU TEKNIKOA

**ARTOLA
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerías, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ZER NAHIAGO?

Juli Coca Mora Jovi dendako eskaparartista

- **Zenbatean behin aldatzen duzu eskaparatea?** Hamabostean behin.
- **Zein eskaparate gogoratzen duzu bereziki?** Gabonetakoa: Erregeak kohete batean heltzen ziren.
- **Koloniarik?** Bai: "Poison".
- **Oso usaintsua omen da hori:** Bai, "sentsazio gogorak" gustatzen zazkit, baita kolore biziak ere.
- **Zine-zuzendari bat?** Zinea gustoko dut baina ez dut gehiegi ulertzen, ez dakit.
- **Pelikula gustokoena?** "El puente sobre el rio Kwein"; 20 bat aldiz ikusi dut.
- **Diskotekak ala tabernak?** Diskotekak.
- **Nola konkistatuko zenuke mutil eder bat?** Erraz, hitzeginez.
- **Maiteminduta zaude?** Bai.
- **Zer baloratzen duzu gehien pertsona batengan?** Egiazaletasuna.
- **Eta gutxien?** Gezurtia izatea.
- **Zein janari prestatzen duzu ondoen?** Garbantzuak.
- **Aurten egon zara sagardotegian?** Ez.
- **Arraina ala okela?** Arraina.
- **Zein arrain?** Legatza.
- **Kirolari bat?** Modan dagoenez, Indurain.
- **Arrasateko jairik onenak?** Maritxu, baina motz geratzen da.
- **Ostiral ala larunbat gauak?** Larunbat gauak.
- **Gauean egoten da girorik Arrasaten?** Gazteentzako bai, helduentzako ez.
- **Arrasateko zein txoko ez zenioke erakutsiko kanpotar bati?** Matadero inguruak.
- **Kotxean hartu duzun abiadura handiena?** Ez dut abiadurarekin jolasten, oso beldurtia naiz; baina kotxea beste norbaitek gidatzen duenean, gustoko izaten dut.
- **Zure defekturik handiena?** Lotsa gutxiegi daukat.
- **Bertso-saioak gustoko dituzu?** Bai.



LABURRAK


Marrazki eta pintura ikastaroak

Marrazten edota oleoak margotzen ikasteko gogorik inoiz izan baduzu, aukera ederra lizatzen zaizu orain, Arrasateko Udalak antolatuta, marrazki eta pintura ikastaro eta tailerrak hasiko dira eta irailaren 21ean.

Irakaslea Amaia Bengoa izango da, Arte Ederretan lizentziatua eta Monterrono ganbaran emango ditu klaseak. Matrikulazio epea irailaren 12an hasiko da, 14ra arte luzatuko da: Ikastaro hauetan parte hartu nahi izanez gero, arratsaldeko 5etatik 7etara Monterrono ganbaran eman beharko duzu izena.

Matrikularen prezioa 15.000 ptakoa da eta talde mugatuak antolatuko dira, 20 lagunekoak, asko jota. Klaseak astegunetan arratsaldeko 5etatik 8etara eta larunbatetan goizeko 10etatik ordu batera izango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxeko kultura departamendura jo edota 790900 telefonora deitu.



Arrasateko OSASUN GIDA


oraindik ez bazaude, ez itxaron gehiago!!

Deitu 77 08 15 Tfnora.

UGARAN
jatetxea

David Scott amerikarra Arrasaten dagoeneko

Amerikar bat taldean izango zela ziurtatu zuten Urbina-Maltzaga saskibaloitaldeko ordezkariak eta hala izan da. David Scott Indianako jokalaria izan da saskibaloitaldeko azken fitxaketa. David Scottek hegaltzaren pivot postuan jokatzen du eta taldeko bizkar hezurra izatea espero du Txus Briuzela entrenatzaileak. Ditu-gun datuen arabera, Indianako jokalaria saskiratzaile sutsua dela esan dezakegu, erasoan ondo jokatzen duena eta defendatzea tokatzen denean, hori egiten ere badakien horietarikoa omen da. Scottek 24 urte ditu eta 1'98 metroko altuera. Saskibaloitalde munduan lehen urratsak Indianako Graceland Christian ikastetxean eman



Astearrean aztertu zuten medikoek David Scott jokalaria.

zituena eta jokalaria moduan Miami Unibertsitatean gorpuztu zela esan genezake. 93-94 denboraldian Estatuko ACB ligan jokatu zuen BFI Granollers talde Cataluñarrean. Urtebete bertan egin ondoren, berriro Estatu Batuetara itzuli zen eta bertako zenbait taldetan jokatu ostean, aurreko Urbina-Maltzaga saskibaloitaldean arituko da.

David Scottekin batera beste lau aurpegi berri izango ditugu saskibaloitaldean. Alvaro Coca, Caja Bilboatik datorrena, Iñaki Arrue Señorío de Zuasti taldean ibilitako, Iñigo Pastor Askatuak taldekoa eta Iñaki Txintxurreta Basconia-Tau-gres Gasteizko taldeko jokalaria ohia.

Mondrak 0-4 galdu zuen denboraldiko lehen neurketan

Mondra taldeak igandean hasi zuen 94-95 denboraldia. Uda guztia entrenatzen ibili ondoren, igandean iritsi zitzaion zertarako gauza den erakusteko ordua. Jarraitzaileen artean ikusmin handia zegoen aurrengo hirugarren mailako taldeak egin zezakeenaz. Baina igandean ezer gutxi egin zuen eta Mondra taldeak ez zuen itxura ona erakutsi Gobelako futbol zelaietan. Mondrak eta Arenas taldeak neurtu zituzten indarrak arratsaldeko 5etan hasi zen neurketan. Hasi eta 4. minutuan penaltia pitatu zuen



Mondrak aurrendenboraldi sakona egin du.

Gonzalez epaileak Mondraren kontra eta markagailua mugitzeko aukera on hori ez zuen Txufik alperrik galdu,

lehen gola lortuz. 12. minutuan Tarancon izan zen golegilea eta 23.ean Mariok beste penalti bat gol bihurtu

zuen. Kontuak kontu 25. minuturako Mondra 0-3 galtzen zebilen. Bigarren zatiko 26. minutuan Arenasekoen 4. gola etorri zen, partiduko azkena izango zena. Mondrak ez zuen partidu osoan zehar bururik altxatu eta gainera 8 jokalariez geratu zen, Madinak, Ignaziok eta Egañak txartel gorria ikusi zutelako. Une honetan Mondra sailkapeneko azken tokian dago. Datorren domekan, Mondra eta Balmaseda izango ditugu aurrez aurre, arratsaldeko 5etan Atxabalpen jokatu den neurketan. Zorte on!



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE


PENALTIAK

● Aukeak antolatu dituen ikastaroetan izena emateko epea datoren larunbatean bukatuko da, irailaren 10ean. Dagoeneko 3 ikastaro daude hasteko gertu: Tenis ikastaroa, mantentze soinketako eta adineko soinketako. Dena dela, aurrerantzean beste ikastaro batzuk abian jartzeko asmoz dabil-tza.

● Atletismoko monitorea izateko ikastaroa irailaren 24an hasiko da Elgoibarko Mintxetako atletismo pistan. Larunbatetan goiz eta arratsaldean emango da ikastaroa eta igandetan goizez bakarrik.

Gatzagako lasterketan Unai Etxebarria nagusi

1. eta 2. mailako afizionatuentzat txirrindulari lasterketa jokatu zen larunbatean Gatzagan. Hasieran 140 txirrindularik izena eman arren, 57k bakarrik lortu zuten 116 kilometroko ibilbidea bukatzea. Lasterketan zehar txirrindulariek eramandako batazbesteko abiadura 42 km/ordukoa izan zen. Txirrindulariek ibilbide gogor bati egin behar izan zioten aurre eta domekan izandako eguraldi txarraren ondorioz, are eta gogorragoa bihurtu zitzaizkien egin beharreko kilometroak. Azkenean, Cafe Baque taldeko Unai Etxebarria izan genuen azkarrena; bakar-bakarrik heldu zen helmugara. Helmuga pasatzen 2.ena Dabid Etxebarria izan zen, talde bere-



Lasterketa gogorra izan zen eta eguraldiak ere ez zuen lagundu.

koa. Hirugarrena, ostera, Garikoitz Santesteban. Tartereko helmugak Alberto Lopez de Munainek eskuratu zituen; 8.000 ptako saria Ramon Elejaldek (Raflek) eman zuen. Mendiko saria ere Albertorentzat izan zen

eta taldekako saria Cafe Baque taldearentzat. Eskuraturako garaipena Asier Guenetxea txirrindulari profesionalaren aita zenari eskeini zion Unai Etxebarriak. Pedro Guenetxea uztailen hil zen.

LORAMENDI KIROLAK



BEHERAPENETAN GAUDE

TXANDALAK: %30 (UME ETA HELDUENTZAT)

ZAPATILAK: %20 - %50

**KAMISETAK:
SUDADERAK: %30
PRAKAK:**

Juan Luis Azkarate

ASA: Zuribeltzetik koloretara

Tailagin eta Irratizale taldeek bizilagun berria daukate: ASA Argazkilaritza Taldea. Ihauterietako eta Santamasetako argazki lehiaketak antolatu arren, ez dute oihartzun handirik izan orain arte. Udaletxeak lokal bat eman berri dienez, makina bat asmo dute. Juan Luis Azkarateri, ASA taldeko partaideari galdetu diegu guzti horren gainean.



ptakoa izan da. Orainarte ez dugu diru arazorik izan, baina egia esan, ez dugu zertan gastaturik izan.

— Momentu hauetan zein da ASA taldearen bazkide, lokal eta finantziaiorren egoera?


— 20 bazkide izango gara gutxigorabehera. Lokalari dagokionez, aurrera pausu handia eman berri dugu, 3 urtetan lokalik gabe egon gara eta. Dena dela, oraindik hutsik dago: tresneria guztia erostea falta zaig. Orainarte AEDn, IMIren lokalean edota Monterronen bildu behar izaten genuen bilerak egiteko; egia esan, horrela ezin genuen gauza handirik egin. Finantziaketa, alde batetik, bazkideen bidez egiten dugu: bazkideok 2.000 pta. ordaindu behar izaten dugu taldean sartzean eta urtean zehar beste 2.000 pta. Udaletxearen aldetik dirulaguntza dauka: Aurtengoa 140.000

— Nola izan da lokal berria lortzea?

— ASA taldea duela 4 urte sortu zen eta eman berri diguten lokal hau egokitzeo proiektua 1991an onartu zen. Diru falta zela eta, beti atzeratzen ziguten lokala ematea.

— Somatzen da argazkigintzarako afiziorik Arrasaten? Zer moduzko argazkilariak dira arrasatearrak?

— Bai, Arrasaten bada-



“Argazkizale asko dago, baina bakoitza bere kasa ibiltzen da”

go argazkigintzarako zale-tasuna, zaletu asko dago Arrasaten, baina beste herri batzurekin konparatuz, Arrasateko argazkilariek geure kasa gabiltza. Arrasaten ezer seriorik egon ez delako beste herri batzuetara joan izan diren arrasatearrak ere badaude. Orainarte jendeari eskeintzeko gauza handirik izan ez badugu ere, lokal berriarekin eta ditugun asmoekin jende asko hurbilduko zai-gula uste dugu. Lokal berriak ekintza asko egiteko aukera ematen du, oso handia da eta: ikastaroak, bilerak, artxiboak, liburute-gia... baita erakusketak antolatzeko ere. Dena dela, gauza asko falta da oraindik lokala osatzeko.

— Zein ekipamendu izango du lokal berriak?

— Zuri-beltzeko argazkiak errebelatzeko 3 laborategi izango ditu, nahiz eta aurrera begira, agian koloretako argazkiak errebelatzeko laborategia ere jarriko dugun. Ekipamenduaz gain, bilerak egiteko gela handi bat ere badauka lokalak, baita almazen bat ere. Guztira 100 m²ko lokala da.

Bestalde, lehendik badugu hainbat tresna: Audiobisualetako ekipo bat eta nahasketa mahai bat, “karrusel” bat, diapositibentzako aparailua.

LABURRAK

Gazte Akanpada Degurixan

Joan den urtekoari eutsiz, aurten ere Jardun, AED eta Loramendi kultur elkarteek, Gazte Akanpada antolatu dute Degurixan. Deba Garaiko gazte guztiak daude gonbidatuta bertara eta irailaren 9, 10 eta 11n izango da. Irteera Urkuluko sarreran izango da arratsaldeko 6etan eta gazte bakoitzak norbere gauzak eraman beharko ditu, bazkaria eta kanpina barne.

Egitarauari dagokionez, denetarik ekintzak egingo dira 3 egun hauetan: Ostiral gauean, “Musika eta Dantza gaua” izango da jolasekin tartekatuz. Larunbat goizean, berriz, mendi irteera egingo da eta arratsaldean “Olimpiadak” jokatu dira. Gauean, “Gau prehistorikoa” izango da (antolatzailuek ez dute gau hau zertan datzan zehaztu nahi izan). Igandean berriz, garbiketa egingo da eta jeitsierari ekingo zaio eguerdirako etxera heltzeko.

Joan den urteko akanpadara joan zen gazte piloak kontutan izanda, parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu: ez zarete damutuko eta makina bat lagun egingo duzue. Ez duzue izenik eman behar, beraz, anima zaitzte!

Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIAS

GORKA

ILEPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

beinke

Gerra Diputazioaren

2. Urteurrena

Frantsesak Arrasatera etorri zirenetik 200 urte betetzen dira aurten. Hori dela eta, Arrasateko Udalak Eusko Ikaskuntzakin maiatzean sinatutako hitzarmenaren ondorioz sortutako harremanari esker, Frantziar Iraultzaren inguruko hainbat hitzaldi interesgarri antolatu dituzte elkarlanean.

Hitzaldi hauek, irailaren 13, 14 eta 15ean izango dira eta hauek izango dira gaiak eta hizlariak:

Irailak 13an: Joseba Goñi Galarragak "La Diputación de Mondragón en la época de la convención" gaia sakonduko du.

Irailak 14an: Joseba Agirreazkuenaga "Konbentzioko gerraz interpretazio kontrajarriak euskal historiografian azken 200 urteotan" gaiaren gainean jardungo du.

Irailak 15ean: Gregorio Monrealek "El pensamiento político guipuzcoano en el siglo XVIII: Larramendi" gaia jorratuko du.

HISTORIARI BEGIRA

Frantziako Iraultzarekin batera gertatu zen frantziarren etorrera Gipuzkoa eta Arrasatera, 1789. urtean hain zuzen. Dena dela, frantsezen inbasioa ez zen 1794ko uztaila-



Frantses soldaduak Arrasaten: Dragoiak.

ren 24ra arte gertatu. Garai hartan, Gipuzkoako gobernuak Getarian zegoen ezkututa, baina inbasioak Gipuzkoari mesedeak ekar diezaizkiokeela eta, Mon-

cey buruzagi frantsezarekin bake hitzarmena sinatzea erabaki zen baldintza batzuk errespetatzen bazituzten. Hasiera batean Moncey generalak baldintza horiek onartu egin zituen baina denbora gutxira Moncey generalari kasu egiteari utzi zioten frantsezek: Gipuzkoako gobernu atxilotu eta Baionara eraman zuten preso 1794ko irailaren 15ean. Gipuzkoarrak asko haserretu ziren eta arazo hura konpondu nahian, Arrasaten elkartu ziren Gipuzkoako 17 herri.

GERRA DIPUTAZIOA ARRASATEN

Getarian erabaki zena aldatuz, Espainiak Gipuzkoarekiko zuen burujabatasuna onartu zen berriro Arrasaten eta gero, Diputazio berria edo Gerra Diputazioa izendatu zuten Arrasaten elkartutako herriek. Euskal lurraldeetan gerrate edo inbasioaren bat gertatuz gero euskaldunei zegokien gudarostea antolatzea eta hornitzea zen Diputazioaren zeregina.

Diputazio hura 1794ko azaroaren 28ra arte geratu zen Arrasaten, frantsesak Bergaran sartu zirenera arte. Gero lekuz aldatzen joan zen eta azkenean Gatzagan geratu zen.

Euskal lurraldeetan inbasioaren bat gertatuz gero, euskaldunei zegokien gudarostea antolatzea zen Gerra Diputazioaren zeregina.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheha Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



La Merced ikastetxean, Ospitale Zaharreko lorategian.

otore asko ageri dira La Merced ikastetxeko neskatila hauek. Erretratua ateratzeko jarri zirenean beste neskatila bat ere jarri zen eurekin, eskolakoa ez izan arren. Ezkerretik eskumara, **Teodora Mondragón, Rafaela Ruiz, Margarita Iñurriagarro, Rosalia Castellanos, Juanita Kortabarría, Asunción Arizaga** eta **Elisa Guizarro**. Neskatila txikia **Esperanza Etxebarria** da.


1925 inguruan zen, eta eskolako jardinean atera zuten erretratua.

Orduan ere goiz eta arratsalde izaten zuten eskola, goizez 9etatik 12ak arte eta arratsaldez 2etatik 4etara. Goizean, geografia, aritmetika, Historia Sakratua eta kantuan ikasten zituzten. Arratsaldetan "laborea" egiten zuten, "edozein emakumek etxerako behar duen guztia" ikasteko: Estoreak, bisiloak eta

antzekoak egiten, bordetan, josten eta antzekoetan.

Zapatuetan eskola garbiketari joaten ziren ikasleak eta makina bat hauts jandakoak direla gogoratzen dute denek.

Eskurtsioak ere egiten zituzten eskolatik, zaldidun kotxean egin ere. Geroago "Titanic" izenez ezagutzen zen autobusa atera zuten eta autobus hartan joaten ziren, zaldiaren sistema alboratuta.



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan.

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETAK

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzizioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE

Tfnoa: 79 46 62

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

*%40ko beherapena
modelo batzuetan*

FAGOR

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE


Tfno: 70 00 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE

Tfno: 70 00 42

FAGOR




• AIPUA •

“Norbere buruarekin huts egitea, besteekin arrazoi izatea bezain zaila da”

CHARLES LEMESBE

• JEROGLIFIKOA •



Euskal Herriko herrialdea

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10			
11		12				13
14						15
16			17	18	19	
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Madinabeitia bibolinjolea. 8. Baimena eman. 9. India. 10. Irish Republican Army. 11. Sentibera. 14. (Ald.) Uretako landarea. 15. Zenbaki erro-matarrez, 51. 16. Errepikatuz, hodi. 17. Etorkizuna igartzeko karta multzo. 20. Oinetan apoak dituen ugaztuna.

Bertikalak 1. Ohartarazi. 2. Astegun. 3. Bat eta bat. 4. Norbaiten itxurak egin. 5. Neuri. 6. (Ald.) Neurtzeko, 0,835m.ko unitatea. 7. Pairatu. 12. Holandako ibilgailuetan. 13. Kataluniako herrian, Gironan. 18. Galdetzeko partikula. 19. (Ald.) Ez eme.

• HOROSKOPOA •

Aries Debekatuta dauden gauzak egi-tea gustatzen zaizu. Zergatik?

Taurus Udazkena datorrenez, buru-tik ilea jausten hasiko zaizu.

Gemini Azkenaldian guztia ondo ateratzen zaizu. Horrela jarraitu!

Cancer Argazkiei begiratu, noizean behin gogoratu oporretan ere izan zinela.

Leo Laster afari batetara gonbidatuko zaituzte. Aurrez, hobe nork ordaindu behar duen argitzen baduzu.

Virgo Batzutan asko arduratzen zara baina askotan ilargian egoten zarela dirudi.

Libra Etxeko giltzak aldean eraman arren, tinbrea jotzen duzu. Izorratzea gustatzen zaizu.

Scorpio Ameriketara joan eta herri-ko lagun bat ikusi. Kasualitatea ote?

Sagitarium Nahiz eta ez adierazi, zure lagunek asko estimatzen zaituzte.

Capricorn Oporretan galdu zenuen maletan zuk uste baino gauza gehiago zituen.

Aquarius Langabezian egoteak ez du esan nahi etxeko lanetarako ere langabezian zaudenik.

Piscis Zure buruko txipak zaharkitua daude. Jar itzazu berriak.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ZORIONE ARREGIREN GOMENDIOA •



Uda eta oporrak pasa dira, baina gomendioa eskatu diogunean, oporretan egin duenaz akordatu da Zorione: Auzolandegiak, AEDk Iparraldean antolatu dituenak, gomendatu nahi izan dizkigu. "Primeran pasa dugu, lan egin eta Seaskari lagunduaz. Lana gogotik ez dakit, baina gogoaz bai behintzat". Hori ederto adierazten duen lema ere bazuten: "Kanbo, lan eta manbo". Aurtengoa amaitu da, baina datorren urterako dagoeneko planak egiten hasi nahi duenarentzat, horra hor aukera polita, lagunarte giroan Iparraldea ezagutzeko aproposa. Zorionek esaten duen moduan, "hango lanak ez du akaberarik, eta Kanbon ez bada, beste nonbaiten". Bitartean, urtean zehar ere joaten jarraitzeko asmoa du, beste lagunekin batera.



• PROGRAMAZIOA •



IRAILEKO PROGRAMAZIOA

Egunero egunero, informatiboak 20.00etan, 20.30etan eta 21.00etan. Herrian gertatutakoak hurbil-hurbiletik ezagutzeko aukera!

• KOMIKIA •



EGVZKiGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

• SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Albina, 8. Bat-
mendu, 9. In. 10. IRA, 11. Sent-
kor, 14. Alga, 15. LI, 16. Tu, 17.
Tarot, 20. Ungulatu.
Bertikalak: 1. Abisatu, 2. Lane-
gun, 3. Bi, 4. Imitatu, 5. Neri, 6.
Kana, 7. Sufritu, 12. NI, 13. Olot,
18. Al, 19. Ar.
Bizkaiak:
Jeroglifikoa:

Etxebizitzak

- **Kurtsoan zehar, Donostian** (Grosen) hiru neska behar dira pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 30 00. Lierni.
- **Pisu edo lokal txikia** behar dugu alokatzeko. Merke. Tfnoa: (945) 27 98 68. M^a Luisa.
- **Altamiran** elkarren ondoko 2 garaje saldu edo alokatzen dira. Tfnoa: 77 03 22.
- **Pisua alokagai** Errioxako Ezkarain. Tfnoa: 79 31 56.
- **Pisua salgai** San Josepe auzoko 8ean. Tfnoa: 79 51 48 (9etatik 10etara).
- **Gasteizen** pisua betetzeko ikasleak behar dira. Tfnoak: 79 34 58 / 79 16 82
- **Mutil bat behar dugu** ikasle pisu bat osatzeko. Tfnoa: 51 91 21.
- **Estudio polit salgai Hendaia erdian.** Erabat hornitua. Parking eta ganbaraz. Tfnoa: 71 63 19
- **Neska bat behar da** Donostrian erdialdean pisua konpartitzeko. Hilean 17.000 Pta. izango litzateke. Tfnoak: 79 26 93 - 81 14 33.
- **Irakasleek** pisu bat alokatuko lukete. Tfnoa: (Parlance) 77 06 83.
- **Pisua behar dut konpartitzeko** Arrasaten. Tfnoa: 47 42 67. Arantza.
- **Ikasle batek** beste gazte batzuekin pisua alokatuko luke. Tfnoa: (948) 55 35 90. (Susana)
- **Bi laguntzako tokia daukat** Gasteizko etxebizitza zentriko batean. Ikasturteas zehar hiru izango gara alokatzeko. Egokia ikasleentzat. Interesatuek dei egin 79 36 82 edo (945) 29 99 47 tfoetara.

Lana

- **Emakume euskalduna** umeak zaindu edo etxea garbitzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Klase partikularrak** ematen dira uztaila eta abuztuan. OHO, BBB eta UBI (gai guztiak). Tfnoak: 79 46 75-79 23 36.
- **Filosofian lizentziatu** EGAduna behar da. Titulazioa: Teologia eta pedagogia erlijioso edo antzekoa. Interesatuek aurkeztu kurrikuluma San Viator Ikastolara.
- **Mendiolako jatetxean** neska bat behar da kamarera lanak egiteko. Harremanetarako dei egin 71 43 45 tfnora. Eguerditik aurrera.
- **Klase partikularrak:** ingelesa eta euskara. Tfnoa: 79 21 56. Edurne.
- **Pertsona euskalduna** behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 79 56 30.
- **Emakume bat** behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 22 13.
- **Neska euskaldun** behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 77 06 50 (Ana). 22.00tik aurrera.
- **Garbiketako lanak** egiten dira, orduka. Tfnoa: 79 62 85. Rosaz galdetu arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Esperientziadun neska** gertu ileapandegi batetan lan egiteko. Tfnoa: (945) 44 51 11.
- **Umeak zainduko nituzke.** Tfnoa: (945) 44 51 11.
- **Emakume bat etxeko lanak** eta umeak zaintzeko prest dago. Tfnoa: 79 60 18. M^a Carmen.
- **Ingeleseko klaseak** ermaten dira. Nagore. Tfnoa: 79 15 62.

Salerosketak

- **Idazmakina elektriko** eta memoriaduna salgai. Tfnoa: 79 47 14.
- **R.9 baten** asientoetarako fundak erosiko nituzke. Tfnoa: 77 04 21.
- **Lasterketa bizikleta salgai.** Kuadroa "MENDIZ" eta "LOOK" Pedal automatikoekin. Prezioa: 40.000 pta. Tfnoa: 79 25 15.
- **Jende famatuaren argazki** originalak saltzen ditut: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Amistades, Duncan... e.a. Idatz ezazu eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 seilu. Helbidea: Igor Galo. Avda. Zarauz 13-3.. 20009 Donostia. Tfnoa: (943) 2106 40.
- **YAMAHA FZR 600.** Merke. Tfnoa: 79 97 48.
- **YAMAHA gitarra** eta gitarra gordetzeko salgai. Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69. Iñaki. 10etatik 12etara.
- **"ESTELLA" akordeoia** salgai, 120 bajurekin. Tfnoak: 79 46 75 eta 79 23 36.
- **Negutegi edo inbernadero** bat saldu nahi nuke. Tfnoa: 79 52 80.
- **"CANON EOS-650" argazki kamara** saltzen dut. Prezio ezinhobean. "35-70 objektiboa" barne. Tfnoa: 79 23 60. Niko.
- **la berria dagoen akordeoia** saltzen dut. 120 baxu. Beltza. Tfnoa: 79 80 91.
- **PUCH Condor ziklomotorea** salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 66 92. Juan.

Denetarik

- **Irailaren 22an Alemaniara** goaz kotxez. Erdibana ordainduko dugu. Interesaturik egon ezkerre dei egin tño honetara: 29 20 36. eta Maite edo Paulagatik galdetu.

Aste Gazte

Bekak

• "Guggenheim Bilbok" graduondoko lau beka eskeintzen ditu, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoa, ondorengo arloetan: a) instalazio saila, b) informazio sistema saila, d) argitalpen saila eta diseinu grafikoaren saila, e) ardura saila. Epea: urriak 17.

• "Pépinieres" beka. Europa mailan, artista gazteei zuzendutako beka, arlo ezberdinetan: arkitektura, zinea, koreografia, arte plastikoa... Iraupena, 3-9 hilabete. Adina, 20-30 urte. Epea: azaroak 30.

• 1994-95 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko, izaera orokorreko beka. Kontzeptu desberdinak: matrikula, ikas-materiala, garraioa, alojamendua,... Epea: urriak 14.

Unibertsitaterako autobusak

• Donostiara eta Bilbora, egunero joan eta etortzeko autobus zerbitzua "Aixola" ikasleen elkarteak antolatutik. Goizez nahiz arratsalde, ordu-tegi ezberdinak. Prezioa: 12.000 Pta hilabetero. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezakezue izena, irailaren 23a baino lehen.

Ikasleentzako alojamenduak

• Donostia, Bilbo, Gasteiz nahiz Iruñean, alojamendua lortu behar duzenok, Donostiako Garibai kalean, 20-behean, Kutxaren bulegoan, informazio zerbitzua duzue. Ordutegia: 9-13 eta 16-19.

Lehiaketak

• "Emakumeen relatoak" lehiaketa, euskaraz nahiz gazte-leraz. 150.000 Ptako sari bat eta 50.000eko akzesit bi. Epea: irailak 30.

• Literatur eta Komiki lehiaketa, Urretxu eta Zumarragako Udalak antolatuta. Nahi duten guztiak har dezakete parte, adinaren arabera maila ezberdinetan banatuko direlarik. Epea: irailak 23.

"Intsumisioak asko kezkatzen nau, instituzio askoren babesa duelako".

**JOSE FAURA MARTIN
ESPAINIAKO
ARMADAKO ESTATU
NAGUSIKO BURUA.**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Jose Aranzabal

S. ANDRES AUZOA ARRASATE Tfnoa: 79 18 92

%40

BEHERAPENA

Sukaldeko altzaritako 5 modeloren
promozio mugatua,
1994ko irailaren 5etik aurrera

Sartu sukalderraino eta aukeratu:

- NALIA
- LINEA
- CAPRI
- VERONA
- OXFORD

6 URTETAKO
GARANTIA

FAGOR 

SUKALDEKO ALTZARIAK




ETXE MOBEL

ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua



Datorren irailaren 12tik,
astelehenerik aurrera
ZABALIK



LEHEN 2 HILABETETAN ZEHAR
zure erosketa

DOHAINIK

lor dezakezu, 500.000 PTA arte.

Ez galdu aukera

Dena ETXEMOBELen
Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Araba Etorbidea, 5 (ESCATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE